

MUNIBE (San Sebastián)

Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**
Año XXIII. N.º 4. 1971. Páginas 583-591

Egunak eta egun-izenak

LUIS MITXELENA

1. Badira, aspaldidanik, etnologoak eta hizkuntzalariak batera lantzen ari diren zenbait sail. Izan ere, hizkuntza, bakoitza, kultura baten (bestela esan, herri baten) mintza eta adierazpide nagusia izanik, aldi joanen lekuko da, eta horrenbestez, nolazpait ere, ahotan darabilen herri horren kulturaren ispilu, zenbait aldiz argi, gehiagotan ilun. Eta gizon zekenaren nahiz mika lapurraren gisa handik eta hemendik bildu dituen hala-holako ondasunei amorruz lotua dagoelako, maiz aski gertatu ohi da lekuko bakar. Bere lekukotasuna, ordea, ez da beti, ezta gehienetan ere agian, argi eta ozena, oinhatz ezabatuxea eta joare mihi-gabea baizik. Bi aldetarik ekin beharrean aurkitzen da, bada, hizkuntzalaria: gauzen aldetik (eta «gauzak» ez dira hemen ikus eta uki ditezkeanak soil-soilik, baizik eta, gainera, gizartean egiunez sortzen eta gordetzen diren ohidura guztien bilduma), batetik, eta hitz soilen aldetik, bestetik.

Hizkuntzalariak, jakina da, ezin ditzake «gauzak» bertan behera utzi, hitzei bakarrei dagokiela; baina halaz guztiz hitzak berak ditu hala beharrez, horixe bait du bere ofizioa, gidari berezi eta aukerako. Badaki hitzek dakarten argia sarritan dela urri eta ahula, baina, guztiarekin ere, hain itsurik gabiltzala zenbait lekutan, ezin ditzaike deusi, den ezteusenari ere, uko egin.

Hizkuntzaren argia oparoago zabaltzen da ahaide hurbil eta urrutikorik aurkitzen denean, zenbait hizkuntza-familiatan gertatzen denez (1). Ez dugu guk horrelakorik, bakarka bait gabiltza oraindik ahaide eta askazi kontuan, egin diren egin-ahalak gora-behera. Historia luze batek bete dezake zertxobait hutsarte hori, baina ez dugu zori onik izan puntu horretan ere, bai bait dirudi. guztiok dakigunez, hain aspaldidanikakoak galararik, bart arratsean jaio ginela hizkuntzaren historiaz den bezan batean.

2. Honera dakardan hauzia *egun* euskal-hitzarekikoa da: ez *egun* bera, noski, hor bait daukagu umezurtz, guraso ezagunik gabe, *egun-ekin* formaz nahiz zentzuz zer ikusirik duten beste zenbait hitz baizik.

(1) Hizkuntza indo-europarrekin zer egin ditezkean jakin nahi duenak ikus beza. azkenekoa delako eta ez urriena. E. BENVENISTE, *Le vocabulaire des institutions indo-européennes*, I. *Economie, parenté, société*, II. *Pouvoir, droit, religion*, Paris 1969.

Etimologiak, zein nahi den hizkuntzatan, zedarri jakinak ditu eremu zabalagoak edo meharagoak mugatzen dituztenak. Euskal-etimologiarenak, berriz, aipatu berria dugun bakartadea dela medio, are Europako beste hizkuntzenak baino hertsiagoak eta murrizagoak. Ez ditugu bi iturburu baizik, «euskal-hitz garbiak» —hots, bestetarikako etorkia inork oraindik igerri ez dienak— kenduz geroz: erdaretatikakoak (latin-erromanikoaren bitartez azal ditezkeanak, batipat) eta euskal-hitz moldatuak, Etxeberri Sarakoak zionez. Hau da, hizkuntzan bertan ezagun diren hitzez eta morfemez osatuak, elkartuak nahiz eratorriak edo erakarriak.

Bestetan esan dudanez (2), azkeneko hauek ez daude nornahiren irispidean. Denboraren joanak ilundurik ageri bait dira; urteek batu eta bateratu dituzte eta, inoiz izan zezaketean itxura berritzeko, ber-eraikitzeke erdaraz dioten modura, ez dago bide zuzenik. Zerbait antzemateko, gerta zitekeana igertzeko gauza izan gaitezke; nekez aurkituko dugu, ordea, indarririk, nik behintzat, uste duguna besteri dudarik eta zalantzarik gabe sinesterazteko. Izan zitekeanari nagoka, beraz, lerro hauetan, ez nahi ta nahi ez izan behar zuenari; ezin-besteko premia, ordea, ez gozoz. Egon, balegoke juezik hauzi horiek erabaki ditzakeanik: aski genduke testu zaharragorik izatea. Baina gure nahia ez da gai horretan nahikunde hutsa besterik. Horrelakorik izango ote dugun eta noiz eskura ditzakegun jakitea, ez dago gure esku. Geroaren mende geldi bedi, bada, azken hitza.

3. Has gaitezen «ostegunaz». Bizkai-aldean *eguen* da egun hori adierazteko erabiltzen den izenik hedatuena eta guztiok dakigu, Barandiaran ere horrezaz maiz aski mintzatu zaigunez gero (3), nabarmen dela aste-egunen izenetan ere, bestetan ez ezik, Bizkaiko euskalkiaren bereizkuntza.

Ez da, ordea, *eguen* Sortalde-aldean hitz horrek duen itxura bakarra. Badira, gainera, *eguan* (Mungian) eta, batez ere, *eguaun* Arabako zortzi herritan (Zigoitia-aldean eta Nafarraten), Euskaltzaindiaren «Erikizundi hirukoitzak» argitara zuen bezala: ikus *Euskera* 7 (1926), 2, 52. Eta hona istilua: erraz atera diteke *eguen* *eguaun*-etik fonetikari bagagozkio; nekez, berriz, *eguaun* iturburutzat *eguen* hartzen bada. Dena den, erregelen arabera sortua ez baldin bada ere, bestela sortua, beste zerbaitekin nahasturik eta gurutzaturik, izan diteke *eguaun*, baina beharrezko dirudi horretarako forma berria izatea. Ez da, ordea, berria. zaharra baizik eta are egundaino agertu den zaharrena: *eguaun* aurkitzen bait dugu, hain zuzen, lehen aldiz, Landucci-ren hiztegian (1562-an), ez *eguen* (4).

Horrexegatik pentsatu nuen (5) *eguaun* hori «Egu-ren egun» litzakeala areago (**egu-egun* edo antzeko zerbait, alegia), «Egu-ren (egun)» baino. Barandiaranek berak batetan eta bestetan diona, hitzez hitz hartzekotan, badirudi bitara uler ditekeala.

4. Iritzi komuna da, uste dudanez, gure aste-egun izenak zerbait itxuraldatu direla inguruko hizkuntzen eraginez: Sartaldeko *ilen* eta *marti-(t)zen*, esate baterako, gaztelaniazko *lunes* eta *martes-en* kideak direla, nola edo hala. Kidekotasun hori nolakoa den da sakonkiago aztertu behar gendukeana.

Hizkuntza horietan hiru eratako izenak bait daude zabalduak, bai latinez, bai latin-kumee-tan, bai hauen ukituz gisa horretako izenak dituzten inguruko beste hizkuntzatan. Esate baterako, lat. *Veneris* soila (gazt. *viernes*), *veneris dies* (fr. *vendredi*, it. *venerdì*) edota *dies Veneris* (kat. *divendres*) (6).

(2) Ikus *FLV* (= *Fontes linguae Vasconum*) 1 (1969). 113-132. Ez dut neure burua aipatzen *iustus iudex* bakarra naizelakoan (*ni* ez naizelarik. jakina), gogaikarri izango litzakealako baizik lehen, ingelesa lagun, luzazki azaldu ditudanak hemen berriz lardaskatzea.

(3) Ik. *El hombre primitivo en el País Vasco*, Donostia 1934, 79 h. or.; *El hombre prehistórico en el País Vasco*, Buenos Aires 1953, 171 h. hor.; *Mitología vasca*, Madrid 1960, 121 h. or.

(4) *Dictionarium linguae Canfabricae*, Donostia 1958. 43 eta 138 or.

(5) *Fonética histórica vasca* (=FHV. gero), Donostia 1961. 92 eta 309 or.

(6) Ik. CARLO TAGLIAVINI, *Storia di parole pagane e cristiane attraverso i tempi*, Brescia 1963, 65 hh.; GERHARD ROHLFS, *Diferenciación léxica de las lenguas románicas*. Madrid 1960, 49 hh. (eta, gainera, 17-garren mapa edo, nahiago baduzute, karta eta, are nahiago bada, lurtamua). Kontuan hartzekoak dira hor Alvar-ek itzulpenari erantsi dizkion hitzak. Hona zer dion berak aipatu lekuan, R. MENENDEZ PIDAL. *Orígenes del español*, 393 hor.: «*dillunes* vivía en la lengua rústica de Salamanca en el siglo XV».

Hirugarrena zen traketsena euskal-egiturari dagokionez eta ez da miresteko azterrenik gabe gelditu baldin bada gure artean. Egin nahi nukean galdera, ordea, hauxe da: segur ote da *ilen-en -en* hori, adibidez, dirudiena dela, *-en* atzizki ezaguna alegia? Ez ote diteke, ez badirudi ere, egun-en laburpena izan?

Bi alde on ikusten dizkiot aldakuntza honi. Aipatu dudan *eguen-en* laguntza, batetik, argi bait dago hor egun-en (edo, nolahi ere, *-en* ez den «beste zerbaiten») itxuraldatze laburragoa. Sartaldeko *martitzen* edo *martizen* (7), bestetik. **Marti(t)z* egun har badezagu oinharritzat, ez dugu genitivo bat baizik behar, latinezkoa bera, dena den euskeraz hartua. Bestela, berriz, adiera berdineko bi itsaskin behar genituzke: latinezko *-is* eta euskerazko *-en*. Eta, jakina, usterik ekonomikoena hobe da, besteak beste, hauzi mota hauetan. Diodana egia balitz edo behintzat egia hurbil darraiona, *ilen* eta *mart(t)zen*, *lundi* eta *mardi-ren* kideak lirake, ez lunes eta *martes-enak*, nolarebait esateko (7).

5. Igandearen bezperara bagatoz orain, larunbat da, segur aski, izenik zabalduena. Ez da hori, ordea, orain nagusi agertu arren, hitz horrek izan duen itxura bakarra. Aldaera zaharrene-tarik bat, eta Bizkai-aldetik datorrena, gainera, *RS-en* (159) irakur diteke: *Eguzqui baco lauren batic* ez «No ay sabado sin so». Halaber Ochoa de Arin gipuzkoarrak, «Iruñeco Obispadu»-az ari delarik, 153 hor.: *Hostirala egunean, edo Laurembat egunean... Obispadu onetacoac Calaorraco Obispaduan jan daique escrupulo vague Laurembat egunean, an permetitcen dan araguaia*. Ubillos, giputza hau ere, zalantzan dabilela dirudi: *laurembata, laurembatean* (26, 175, 186 hh.), *baina la-rembata* (189), *ostiral-larumbifetan* (ibid.). Lapurtarretan, *larunbat* bakarrik ageri da hasteandani-*nik*. Cf. Harizmendi (Vinson-en argitaraldiaren 1 h. hor.: *Bazcotic Trinitateco igandearen aiticine-co Larumbataren Completetaraino*), edo Etcheberri Ziburukoaren Man. dev. I, 32: *Ezteçaquela [hik!] haragui ian aiphatu muguetan, / Ez hain guti Orcirale eta Larumbatetan* (8).

Lekukorik zaharrena, formaz bestelatsukoa, Leizarraga-rena da, dirudienez; testua merezi bezain aipatua izan da, ezin hobeki ematen bait du aditzera zer-nolakoa behar duen izan itzulpen batek, Liburu Sainduetarikakoa delarik behintzat: *Sabbathoa, erra nahi da reposa, eta berehala [=dagoen dagoenean, deusik aldatu gabe] hitz bera eduqui vkan dugu, ceren Euangelistéc Grec-quez scribatzean, lengoage hartaco ezpacen-ere, ezpaitute cambiatu vkan. Eta hura cen asteco çazpigarren eta azquen eguna, orain batéc larambate, bercec eguiacoitz eta bercéc nesquen egun deitzen duguna* (Decl. a vi. r).

Bilduak ditugu, beraz, larun-en aldakan, lauren-, *laren-* eta *laran-*. Iturburu komuna nekez izan diteke *lauren + -bat(e)*. Zein ote da, bada: **laur(en)-egun* edo? Dena den, ezin mintza behiala Vinson mintzatu zen bezain segurki: «on ne saurait le traduire autrement que 'un quart', c'est-à-dire 'un quart de la lunaison'» (9). Laurena edo laugarrena izan dedin (cf., beheraxeago, *laurdenegu(n)* «trasanteayer», 3 9), asteazkenak behar luke lehen eguna izan; beste aldera kontatuaz, berriz, astearteak. Gainera eta bestalde, Leizarragak arrazoi balu beste guztien kontra eta gaisetik, *-bate* litzake, ez *-bat*, azken-zatia: gogoan eduki dezagun, horrezaz gain, maiz aski galdu dela *-e* hitz elkartuen gibel-aldean (ik. FHV, 411 h.) (10). Orduan, behar bada, eta beste zenbait denbora-neurri izenetan gertatzen denaren arabera, *-te* atzizkia geneukake hemen ere: cf.

(7) Landucci-k darabilen *martičena* hotsen aldetik garbia da, noski (orain *martizen* idatziko litzakeana, alegia), bes-tela *şç* erabiltzen bait du oraingo *tz* adierazteko. Ez dira, ordea, garbiak, adiera bakarrekook, ez Micoleta-ren *martizena* ez Capanagaren *Martizenean*, *z / tz* izkribuz bereizten ez dutenez gero. Añibarrok *martitzena* ipini zuen bakarrik baina Oinati-aldean behintzat bizirik dago *martizen*: ik. *Euskera*. 2-gn. aldia, 1 (1956). 212. Beste izenari dagokanez, Landucci dugu lekukorik zaharrena (*ylena*); Micoleta bilbaotarrak «lunes, ilena» dio, «y también astelena». Añibarrok ere *ilena* Bizkaikotzat dakar, *astelena-ren* aldamenean: ik.. gainera, *Euskera* 7 (1926). 2, 52 h. Azkuek, *Morfología vasca*, Bilbao 1923, 96 or., oharra, duda egiten du *ilen-en* sorreraz: *il + len* primero de la luna-, ala *il + -en* «de la luna».

(8) Cf. «*larumbatba, laurgardagur*», DEEN. *Glossaria duo Vasco-Islandica*, I. 205.

(9) DIEV 4 (1910), 37. Tagliavini-k aipatzen duen Gorostiagaren aterakari zorrotza (eusk. *larunbat / larunba*. lat. *Saturnus (Saturni dies) / saturninus bezala*) Schuchardt-engandik dator: ZRPh Beiheft 6. 47. ik. COROMINAS, DCELC 4. 161 h.

(10) Nahi duenak ikus beza (edo asma beza) bere buruz zer dion (edo zer esan nahi lukean) J. GARATE-k: BRSVAP 5 (1949), 360 eta 13 (1957), 50, gutxienez.

aste, urt(h)e, mende (errong. zub. *mente*) (11) eta *igande* (errong. zub. *igante*) (12). Ez dakit ez ote litzakean *i(n) aute-ak* «aratuzteak» ere lerro honetan ezarri behar, *i(n)auteriak -iri* atzikiaren bitartez luzatua delarik.

6. Diakronia aldetik, ez bide da izen tentagarriagorik, aste-egunen artean, Sartalderuntz «ostiraleak» duena baino: *bariku* (Cap. (13), Mic., Añib., etc.), baina baita ere *bariaku, barieku*, Gipuzkoan sartzen dena, Mutriku-aldean eta (14). Aurkientza horietan, beste hitz bakar batek jaten dio lurra, Araba-Gipuzkoetako eremuetan batipat: antzina-antzinako den *egu(b)akotx-ek*. Orintxe irakurri bait dugu Leizarragarren lumaz idatzia, eta bizirik dirau gaurdaino, Euskal-heerriaren beste muturrean: han, ordea, ikusi dugunez, «larunbata» da, ez «ostiralea».

Mendebaleko hitz honen lilura ezagun da nondik datorren. Guztion iritziz aski berria delako, Mendebalean baizik ez bait da usatzen eta, horko *zapatu* eta *domeka-ri* bezalatsu, kristau-urri-na bait dario. Iturburu-bila saiatu direnek aipatu dute, gutxienez (gr.-) lat. *parasceue* (15), eusk. *baraur* (16), lat. *Venus* eta are besterik (17).

Ez naiz gehiegi luzatuko eskaini diren etimologiaren alde makurrak erakusten. Aski izan bekit formaz mintzatzea, hitz baten forma bait da gorderik daukan muin izkutura daramakean bide bakarra. Eta orain arte esan direnek hitzaren lehen partea esplikatzen dute, gehienez ere, bukaera bertan behera utzirik: lat. *Verlus, Vener-ek*, gehi dezadan, ez du sekula, dakigunez, *-iacus-eko* ken-ondokorik izan. Eta, formaz ari geranez gero, garbi dago *bariaku-tik* abiatu behar dugula, hori bait da «lectio difficilior», ez *bariku-tik*.

Bada, ostiralearen izenen artean, hitz bat Romania-n ez gehiegi hedatua, egia, baina eza-guna halaz guztiz ere: grekotik itzulia edo aldatua, ez hartua, den *cena pura*, «afari aratz, garbi», alegia (18). Ez ote ginoazke oraindaino baino bide hobetarik *bariaku-n* ere *afari-ren* aztarrenak bilatzen hasiko baldin bagina?

Are hobe, zaharrago den abari-renak: Nafarroa Garaian oraindik bizirik dugun forma hori, aspaldidanik bait dator, XIII-garren mendez geroz, gutxienez. Horrela ageri da Nafarroako Fuero General delakoan (19) eta horrela agertu da orain berriro Florencio Idoate-k argitara duen 1400 inguruan Iruinean edo, Nafarroan behintzat, idatzi ziren lerro batzuetan (20).

-
- (11) Larrasquet-engan, *mente* «siècle», *mentez* «de très longtemps». Ikus Mendigacha, *Euskera*². 2 (1957), 127 (1903-ko eskutitza): *Egun kuetan nago sendimentu pikor bateki; oraigunian ilzitzaitadan ñore mentian adess-kiderik andien ekunduana laurdenegun gossan onrizein*.
- (12) Hitz honek igan-ekin zer ikusirik baldin bah. maiz esan izan den bezala, ez ote litzake kristau hitza? Cf. rusoz voskresén'e orain 'igande' < 'Bazko-igande' < 'bizkunde, berbizte': lehen 'igande' zena, 'aste' da orain (*nedéja*. hitzez hitz 'lanik eza' edo). Latinezko *surgo / resurgo-ren* ahaidetasuna daukat gogoan. Igandearen beste izena, Bizkai-aldekoa, *dome(e)ka* da, dakigunez. Begira zer dion ROHLFS-ek, op. cit. 47 h.: «El griego eclesiástico designa el 'día del Señor' (*kuriaké: he:méra*) con una palabra que tenía género femenino, de donde puede inferirse que se ha dado preferencia a un *dies dominica* en aquellas partes del mundo romano donde el influjo del griego eclesiástico fue especialmente intenso». Horrela delarik. Bizkai-aldean. Araban (*domequea*. Landucci-gan) eta are Gipuzkoa eta Nafarroako parteelan, greko-joera ageri da nagusi, inoiz Gorostiagak esan duenez.
- (13) Hauexek dira Capanaga-gan idoro ditudan aste-izenak: *Aste lenean, Marticenean, Eguaztenean* (z-rekin, Añibarrok ere dakarren moduan!), *Eguenean. Batiquan* [sic], *Çapatuan, Domecan* (135 hh. or.).
- (14) Ik. *Euskera* 8 (1927), 26. eta M. AGUD «Los nombres de los días de la semana en vascos, *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'* 2 (1968), 33-48.
- (15) GARATE-k, RIEV 24 (1933), 96, dionez. Arana Goiri-k lat. *parare-rekin* erkatu omen men.
- (16) Besteren artean, VINSON, RIEV 4 (1910), 37: «(*domeka* eta)... sont des emprunts récents, ainsi que *barriaku* [sic]. qui paraît signifier (jour) de jeûne, d'abstinence, et serait ainsi de formation récente.»
- (17) Ik. J. GOROSTIAGA, *Euskera*² 4 (1959), 89: «El *viernes* quedó siempre como día más especialmente de *ayuno*. Así *bariku, bariaku* (¿de BARAUKI?), parece estar relacionado con *barau* 'ayuno', o sea, 'refección tardía, de la tarde', cf. *bera, berandu*». Galdera-marka artean datorren «hitz» horri, esan beharrik ez, izartxo bat falta zaio.
- (18) Ik. ROHLFS. 49 hh., TAGLIAVINI, 106; M. L. WAGNER, *Dizionario etimologico sardo* I, 328: «originariamente termine del rituale pagano, adottato dagli Ebrei per designare la vigilia della Pasqua, come traduzione del greco deipnon *katharón*, e introdotto in Sardegna dagli Ebrei venuti dall'Africa». Bibliografía gehiago hor aurki diteke.
- (19) Ik. *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 52 h.
- (20) «Una carta del siglo XV en vascuence». FLV 1 (1969), 287-290: *jaunatiçula abarion* 'que Dios os conceda buena cena'.

Demagun oraingoz, edo egin dezagun kontu, *cena-ren* euskal-ordaina hor dugula; ondotik datorrena nekez izan diteke pura-ren itzulpen nahiz antzekorik. Laburpen gogorak gogorregiak agian) eskatzen badituz ere, haxe da nik proposatzen dudana: * *(a)bari ba(ga)ko egun*, hots, «dies sine cena». Semantikaren aldetik ez dago inolazko eragozpenik: mundu guztiak ez bada, gehienek gogoan izan dute *bariaku barau-eguna* zela. Eta hona nola azaltzen duen Oihenartek (67 erref.) zer izan zitekean barau hori: *Barurac hirur asse* «Le ieusne a trois saoulées». Eta eraskin gisa, errefauaren sorburua: *Hirur asse hauc adizen dira, barureguneco barascarias, aizi-neguneco auhais, eta biharamuneco ascarias*, «c'est à sçavoir le disner du iour auquel on ieusne; le souper du soir precedent, & le desiuner du lendemain (21).

Formen «filière» delakoa ez da erraz finkatzen, baina honelako zerbait susma diteke: * *(a)baribakoeun* (22) > **bari(b)akoun* > **bariakun* > *bariaku* > *bariku*. Azkeneko *-n-ren* faltaz beherago mintzatuko naiz, ez bait da, bakarrik ez dagoelako, lehen begiraldian dirudien bezain harrigarria. Punturik latzena, lehen *a-rik* eza da. Maiz galdu dira hitz-hasteko bokalak zenbait hizkuntzatan, babesik gabe zeudenean, hala nola albanesez (*mik* «amicus», *mbret* «imperator», etc.) eta greko berriz (*máti* «begi». etc.), bakankago bestetan (gazt. *mellizo*, et.). Gure hizkuntzan ere ez dira eskas (*mazte* < *emazte*, *zumentu* < *ezagu*-, etc.), baina Bizkaitik urrutitua agertzen dira gehienbat.

7. Behin idatzi nuen (*FHV*, 335 hor.) Oihenarten ahotik jaso berria dugun biharamun hori ez dela, ene ustez, *bihar + egun* baizik etorkiz, **-ebun* edo bitarteko dela (23). Bistan da *bihar* eta *biharamun* elkarrengandik hurbil dabiltzala, bai azalez bai mamiz, frantseseko *demain* eta *lendemain*, besterik ez aipatzeko, bezala. Aski ez balitz, hona Leizarragaren zenbait pasarte: *Etzare-tela bada arthatsu biharamunaz: ecen biharamunac beretaco artha vkanen du* «Nolite enim solliciti esse in crastinum. Crastinus enim dies sollicitus erit sibi ipsi» (gr. eis *tè:n aúrion*, he: *gàr aúrion*) (Mt. 6, 34), eta Egun edo bihar ioanen gara hiri batetara, ..Eztaquiçuelaric biharamunecan *cer içanen den* «Hodie aut crastino (gr. sé:meron è: aúrion) ibimus in illam ciuitatem... qui ignoratis quid erit in crastino (gr. *tò té:s aúrion*)». (Iac. 4, 13-14). Euskal-itzultzaileak, frantsesaren ondoren agian, hautatu behar izan du berezirik ez zegoena.

Duela zenbait urte, ez gehiegi, Benveniste-k inork baino hobeki ikertu eta xuritu zuen hiztunak nola jokatzeko duen denborari buruz. Alde edo lekuaren araberrako iruditzen zaion aldiaren ardatzean bi puntu nagusi ditu begiz joak. Bata, mintzatzen ari den mementua bera: *orain*, *egun* (*gaur*), *aurten eta*, gisa berean, *euén*, *ni naguan lequan / orr*, *y aguan lequan*, Landucci-k zionez, eta abar. Bestea da zerbait kontatu behar duenean hautatzen duena: orduan, garai hartan (*bertan*), *egun hartan*, *urte hartan*, etc. Batetik bestera doan aldea ager dedin, aski dut gogoraztea haurzaroan ikasi nuen mintzaieran egiten den bereizkuntza hau: *datorren (heldu den) urtean*, *aurten-i* begira gaudela, baina *hurrengo urtean*, *urte hartaz* mintzatzen baldin *bagera* (24). Hona. bestela, Leizarragaren bi esaldi: *Baina bide egin behar diat egun eta bihar eta etzi* «Verumtamen oportet me hodie et cras et sequenti die ambulare», Lc. 13, 33. baina 32-an *sendatzea acabatzen diát egun eta bihar, eta hereneco egunean fin hartzen diat* «sanitates perficio hodie, et cras, et tertia die consumer». Ezagun da etzi-tik hereneco egunean-era tokialdatu egin dela ardatzaren erdi-puntua: *egun-etik egun hartan-era*.

(21) Egia da gero gauzak leundu zirela, izena eta itxura gorderik haatik. Capanagak dionez (58 or.), *Barauen gane-co aguinduc... obligazen gaitu... ez iaateco iaaqui vedecaturic, eta egunean bein baxen ian eztila*. Gosietientzat, ordea, bada beste galdera: Zeinbat bearlizate gabeco *colaziñoa*?

(22) Jakina da, *baga-k* osorik irauten bazuen ere, *baga + -ko* XVI-gn. mendean bako bihurtua zela Bizkaian. ik.. *RS-etan*, *Odol bearbaguea* (201), baina *Su baco esea* «Casa sin fuego» *gorpuz odol baguea* «cuerpo sin sangre» ren aldamenean (237), *Gurenda andia odol bacoa* «Gran vitoria la de sin sangre» (308), etc.

(23) Oihenartek, ez Azkuek ez Lhandek ez dakarten aditza, *biharamundu*, darabil (Francisque-Michel-en ed., 227 or.): *Gaüa goisac ordaritan biharamun deçano* «jusqu'à ce que le matin, en échange, transforme la nuit en lendemain» (Lafon-en itzulpena).

(24) Benveniste-ren *instance du discours / instance du récit* delakoari nagokala. Leizarraga-ren aditz-aldien erabileraz zerbait esan nahi nuke, gero astiroago aztertzekotan delarik ere. Esaldi nagusietan, aldi joanean, bi gisatara mintzatzen da: *ikhus zezan / ikhusi ukhan du*, esate baterako, guk orain *ikusitua* duen dioguna adierazteko. Baina zerbait kontatzeko, *temps de narration* gisa (cf. kat. va *anar*, etc., berritua), *ikhus zezan du* erabiltzen (batez ere, beraz, Ebanjelioetan eta Apokalipsis-ean), idazlea bere baitarik mintzatzen denean nahiz besteren hitzak aipatzen dituenean (hots, Epistoletan batipat), *ikhusi ukhan du* usatzen duelarik.

Egunez ari galararik, beraz, gauza bat da bezperan (*aitzin-egunean*, nahiago baduzute, Oihenartek dionez) / *egun hartan* / *biharamunean* (25) eta bestea, arras bestea, atzo (*bart*) / *egun (gaur)* / *bihar* edota, urteez mintzo gerala, *igaz* / *aurten* / antz. *geurz* (26). Azkeneko andana hau da soil-soilik hemen dihoakuna. Batez ere, *etzi-ren* ondoren datozen egunen izenak.

RS-etako 410-garrenak honela dio: *Beyçut nay baoçu* / *gaur, biar, ezi, eziluma, ezicaramu* «Hareoslo si quereys, hoy, mañana, después de mañana. (27). Xehetasun bitxia du haatik. Euskal-eta erdal-hitzak zifraz markatuak datoz, ohi bezala, batzuen besteekiko har-emanak erakusteko baina erdarazkoak 5-arekin bukatzen dira, euskarazkoak 7-raino heltzen diren arren. Erdal-itzulpenik ez hori, ene iritiz, erdal-hitzen faltaz izan da, baina bidezkoa dirudi pentsatzeak *eziluma*, orain bezala *etzi-ri* darraion eguna dela eta *ezicaramu*, berriz, *etzi-ren* hurrengo egunaren ondokoa, bestela esan, *eziluma-ren* hurrena.

Egia da bereizkuntza hori ez dela egungo argiegi ikusten, Bizkaian bertan ere, baina testu hau adierazkorregia iruditzen zait duda-mudatan ibiltzeko. Nolanahi ere, *-k-gabeko* formak hauexek dira, dakidanez (28): aipatu dugun *etzi-luma* (orain, Plentzia-aldean eta Zigoitian, *etzilume*, *u-ren* ondoko *-a>* *-e*-rekin, noski), Land. *etzirimu* (*esçirimu* idatzia eta oker itzulia, «oy ha tres días», gero bestek *erenegun* erantsi badio ere), bizk. *etzilimo* (Beran, dirudienez, *etzimo*), *etzidamu*, hedatuena behar bada orain eta Pouvreau-k dakarrena («*etcidamu* edo *itciridamu* (29). O[ihenart]. Le jour depuis demain»), hurbil dituen *etziram* eta *etziamu-rekin*, bizk. *etziaramu*. Gainera, agian, Baztango *etziago*, *-ago* atzizkia nahaste baten ume izan bait daiteke (30). Besteak, *-k-dunak*, hona hemen: ikusia dugun *etzikaramu*, Añibarrok ere dakarrena, eta Lekeitio-ko *etzikaramon* (31).

8. Oina finkatzeko *RS-etako* pasarte hori baizik ez badugu ere, kontu egingo dugu *etziluma* eta *etzikaramu* ez zirela zentzu berekoak, zeinek bere eguna adierazten zuten hitzak baino. Horrela aditu zituen Larramendik ere: *etziluma* «dos días después», *etzikaramu* «tres días después».

Orduan, ene ustez, *etzidamu*, *etzilimo*, *etziluma* eta gainerako aldaerak ez dira, erroz eta etorkiz, antzinako hitz bakar bat besterik: *etzi* eta *biharamun-ek* (hau da, ikusi dugunaren arabera, *bihar* + *egun-ek*) moldatzen zuten inoiz Euskal-herri osoan ahoz-ahoz zebilen hitz elkartua. Esan-nahiaren aldetik, ezin uka aski nabarmena denik: frantsesez '(le) lendemain d'apres-demain' izango litzakeana. Ez naiz hasiko aztertzen hotsak nola aldatu, laburtu eta leku batetik bestera bereizi diren, dugun baino argi gehiagorik gabe nekez, inolaz albalbdi, erabaki daitekean hauzia delako. Bestetan sartzeko, gorago (§ 6) nabaritu dugun *-n* falta bera seinalatuko dut huts-hutsik hemen ere, gero zehazkiago tratatzeko asmoz (32).

Bestea, *etzikaramu* alegia, *etzirik* (edo *etziko*) + *herenegun* litzake ene baitarako: hots, «*etzitik* hasirik hirugarren eguna», *etzikoa* eta hirugarrena bera ere (cf. lat. *nudius tertius*) kontuan hartzen direla.

(25) Ik. AZKUE. *Morfología vasca*, 459 or. (biharamun): «Es más bien nombre adverbial, pues recibe artículo». Cf. *ordu-a-n*, Azkuek ikusi zuenez antz. gazt a la hora (it. *allora*, fr. *alors* etc., COROMINAS 2, 942b) eta antzekoen moldera sortua, eta bere saileko hitzak, beti artikuludunak, besteak aitzitik artikulurik gabe gerta ditezkealarik.

(26) Cf. Etcheberri Ziburukoa. *Eliç*. ***i. r: «Iragan vrthea deitzen da, iaz, oraingoa aurthen, eta heldu dena geurz». Honelaxe dator, *-k*-rekin.

(27) URQUIJO-K, *RIEV* 23 (1932), 270, ez du esaera gehiegi argitzen. Badirudi, haatik, gerotik gerora, konplitu gabe, uzten diren eskaintzez ari dela.

(28) Ik. AZKUE, *Morf.*, 459 or.

(29) Ala *itziri*? Ez dut ongi irakurtzen lehen letra.

(30) Eskuz, Zigoitiako *etzirume* ere gehitu zuen Azkuek. Etxelar-ko *etzinburu* «tras pasado mañana», **etziren* buru dela dirudi. Gip., etc., *etzidamu-atzetik* eta antzekoek itxura duenez atzizkia aldatu dute: *-atzetik*, *-aitzitik-en* ordez. Atze-aurre edo aitzin-gibelak nahasixe dabilta gure artean, denbora-neurrian: non daude, aldi igaroan ala etorkizunean? Bestela esan, badirudi inguruko hizkuntzek eraginik zeuden lekutik aldatu egin ditugula. Ba ote du zer ikusirik honekin Errongarriko *-aste* edo *-azte* (*etziaste* 'etzidamu') atzizkiak?

(31) Ez dut uste *etzikaramu* jostaketan bezala sortua izan denik, hitz-andana luzatzeko, gisa honetako hitzekin inoiz gertatu den bezala. Cf. L. SPITZER, *Lingüística e historia literaria*, Madrid 1955, 45 or. (Pulci-ren *Morgante Maggiore*-z ari da): «... las voces *crai* y *poscrai* son auténticos reflejos italianos de las voces latinas *cras* y *postcras*; en cambio, *poscrilla* y *posquacchera* son términos creados por la fantasía popular».

(32) Badirudi gero *-damu* atzizki-gisa hartu dela «hurrengo eguna» adierazteko, Baztan-aldeko *biardamu* eta *erengundamu-n*, adibidez.

Bigarren zatiak ez du esplikazis beharrik: ongi ezaguna da *heren* (antz. bizk. *aren*) 'hirugarren' eta 'hirutarik bat', nahiz gure egunotan bakan erabiltzen den. Atzizkia **-a-en* (gen. pl.) du; *her-* / *ar-* eta hirur ere elkarren kidebide dira, forma-lokarria eten-askia izateaz kanpora (33).

Pouvreau-k *herenegun* «auant hier» dakar, baita *hereneco egun* ere (Leizarraga baitarikakoa, ikusi denez, § 7): Landucci-k *arayn egun* «antiyer»; Micoleta-k *arenegun* «antayer». Añibarrok, besteak beste, «día tercero, anteayer: b. *arañegun*, g. *ereñegun*» dio, eta Aita Izagirrek arainaun jaso zuen Altsasun (34). Lana erdizka ere burutzeko, gehi dezadan Zaraitzun, hango sinkoparekin, *ernegun* dela, eta Aezkoan eta Ultzaman *erenegu*, berriz ere *-n-rik* ga-be (35).

9. Behin batean (*FHV-n*) bildu nituen hitz-azkenean *-n* / *-Ø* aldakuntza nabari duten euskal-hitzak: bildu eta geldi egin nuen, ez bait nintzan gauza arrazoi-izpirik atzemateko. Bi kasu bazterturik utzi nituen, funtsez bat baizik ez direnak: *-ren* / *-re* izen-atzizkia eta horren pare den *-en* / *-e* aldi joaneko adizkiena.

Gainerakoak, oker ez banago, hauek dira: *-ki(e)n* / *-ki* atzizkia; Aezkoa-ko egu 'hoy' (ez *egun* 'día', hori *-n-duna* bait da han ere) inoiz Euskal-herri osoko izan dugun *egun-en* ondoan, eta Sartaldeko *orai*, besteren (baita Leizarragaren ere) *orain-en* ordez. Hemen ikusi ditugunak balizkoak dira gehienbat, uste hutsezkoak, hala nola *bariaku*, *etxidamu* eta *etzikaramu*, honako hau *etzikaramon* aldamenean duela.

Baina aezk. *egu* zerbaiten eskas dela bezain segur da beste horrenbeste gertatzen zaio-la aezk. naf.-gar, *erenegu-ri*, *egun-en* ume denik ezin bait liteke uka. Eta hori bezain ongi finkatua dago Aita Izagirrek Ultzaman jaso zuen *laurdenegu* «trasanteayer»: *laur(d)en laur-etik* dator *heren hirur-etik* bezain zuzen eta 1 1-gn. oharrean aldatu dugu Errongariko *laurdenegun* osoa.

Beste dudazko bat aipatuko dut oraindik. Karl Bouda-ren ustez, bizk. *eztegu(ak)* hitz elkartua da, eta *egun* du azken-zatia. Orain esango nuke *eztegu* horrek eta bestetango *eztei(ak)* lehen-hitza dutela berdina (*ezti*, Bouda-ren iritziz) ez azkena: gurearena *jei*, *jai* dela uste dut (jakina da *ezteiak* diotela batzuek eta *eztaiak* besteak); Bizkaikoarena, berriz, *egun*.

Begira nora noan. Oraingoz *-ki(e)n* / *-ki* baztertzen baldin badugu, gainerako etsenpluak aldi-hitzetan agertu zaizkigu, nolabait ere denbora adierazten dutenetan. Are gehiago, gehienbat ardatzaren sorlekutzat oraingotasuna, baina mintzo denaren oraingotasuna, dutenak; *egu*, *erenegu*, *laurdenegu*, adibidez, ez ordea *biharamun*. Eta denbora eta lekua berdintsu adierazten ditugunez gero, ez dezagun ahantz, Schuchardt izan dugu horretan gidari, *-ki(e)n* < *ki-de* + *-n* dela, agi danean, eta atzizkiak zerbait non dagoen aldeztu eta aldiz, beraz noiz gertatzen den ere adierazten duela.

10. Hartu dudan lana xitzeko falta zaidana lasterka bizian esango dut, xehetasunak bestetarako utziaz ezin-beste.

Linguistikak arras bide berriak hartu ditu duela hamarren bat urte, Chomsky-ri eskerrak batez ere. Eta sarritan bezala, zaharrak berri gertatu dira hemen ere. Hor aurkitu du gero hain gutxietsiak eta are arbuatuak zeuden Port-Royal-ekoak, XVII-XVIII-garren mendeetako jendeak,

(33) Ba ote da beste modu horretako erregelaz kanpoko orden-erakustailerik? Azkuek serren badakar, Bizkaiko zenbait lekutatotzat. «octavo, octava parte», Mondragoe-ko kana-zerren etsenpluarekin: «octavo de vara». Gero. ordea, *zerren* ere bada, ilun askia: «tercera parte de la vara. Algunos (B-otx) tienen por cuarto, otros (B-mu) por octavo de vara». Ez dago, bada, argi *zortzi-tik* atera denik, batez ere zerrenda hartzen badugu kontuan. Cf. Añibarro: «retal, pedazo de tela que queda, o sobra: c. *erretala*, *emparaña*, *cerrena*, *cerrenda*.»

(34) Aski da Altsasuko *arainaun* eta *arainaun-etziti* Txorierriko *erenegun* eta *erenegun-atxeti-rekin* erkatzea goian (30-gn. oharrean) geniona ikusteko: *aitziti(k)*, bizk. *atxi-ti(k)* dabilela hor dantzan. Gip. *antziña*, etc., ere, erro berekoa, lehenagoko mendei begira dago. ez etortzeko direnei.

(35) Ez dakit zer asma *etxidazu-z*. Larramendi-gandiz dator Humboldt, Añibarro («aun otro día después (de pasado mañana)» eta besterengana (Bonaparte-ganaino ere bai ote?) Azkuek, ordea, hau dauka eskuz erantsia: *etzilaso* (B-mo) «etzikaramu-ostean». Bizkaiko *s* eta *z-k* badakigu nola dabilzan.

Humboldt (Astarloa, zorionez edo zorigaiztoz, ez du oraindik ezagutzen) eta are zaharragoak ere aitzindari izan dituela.

Gure klasikoek oraingo hizkuntzan edo meta-hizkuntzan mintzatu izan balira, genitivo di-relako *-(r)en* eta *-(e)* ko atzizkiak antzaldatze (*transformation*) bidez sortzen direla esan zuke-tean. Hona zer dion Azkue-ren Hiztegiak, s. u. *-ko*: «sufijo casual, calificado de "genitivo rela-tivo" por el príncipe Bonaparte... *-(e)n* es genitivo que indica posesión; el genitivo *-ko* indi-ca lugar o tiempo en que se contiene o pasa algo: *gizonaren etxea*, 'la casa (que es posesión) del hombre'; *etxeko gizona* 'el hombre de (que está contenido en) casa'; *atzoko euriak* 'las lluvias de ayer'». Oraingo mintzairan, *gizonaren etxea*, transformazio-bidez, *etxea gizonak du-tik* sortzen da, eta *etxeko gizona*, horrelatsu, *gizona etxean da-tik*.

Azkuek ederki ikusi zituen *-ko-ren* paradigman ageri diren hutsarteak: «Este sufijo se agrega a la mayor parte de los demás sufijos casuales y aun a frases, formando en uno y otro caso elegantes locuciones. Los únicos sufijos casuales que no reciben el sufijo *-ko* son el activo *-k*, el dativo *-i*, y el inesivo *-n*». Are gehiago: «El posesivo no lo puede recibir directa-mente, sino, como recibe los demás, mediante el artículo *-a* tácito», *RS-etako* adibidea lagun (*Neure eshseco quea / laguneneco sua bano obeda* «Humo de mi casa / mejor quel fuego de la del ageno»).

Artikulu mugatzailea, beraz, ez da «axaleko» egituran ageri (tácito dago), bai halere az-pian datzan (*underlying*) egituran, mendiko 'de + el + monte' bait da. Nongotasunaren mar-ka, *-(e)n*, ez da axalean ikusten, baina adierazpen horren indarra, Azkuek berak dio, *-ko* atziz-kiak darama. Ez naiz formalizazio kontuetan trebe eta ez naiz horrelako istiluetan sartuko, bai-na esan nahi dudana argi dagoela deritzat. Delako «egitura sakonean», mendi + *-a* + *-n* + *-ko* (hots, **mediango*) datza; axalean, berriz, *mendi* + *-ko*. Erregela aski berantkor bat behar litzake, bada, *-a* eta *-n* *-ko-ren* ezker-aldera ezabatzeke (*deletion* delakoa) ahotan darabilgun *men-diko* axalean ager dedin (36).

11. Linguistikan ere badira berrikuntzak, beraz, edo berrikeriak eta ez dut uste, nekez moldatzen banaiz ere bide berrietara, gazteagoen iritziak oro, ez gehienbat, nora-ezean makur direnik, gure zenbait aberkide prestuk aho betean, eta zeharo alferrik, oihuka adierazi nahi di-gun gisa. Gazteago hauek, nolana ere den, ez dute sinkronia eta diakronia duela zenbait urte gazte eta berrizale ziren (eta egun, izenaren tristea, zahar eta lehengo iritziei lotuak dire-nek) mugatzen zuten bezain zorrozki mugatzen. Nik, ezin-damutuzko diakronista horietakoa be-ti izan naizenez geroz, sinkroniaz azaldu dudana ideia horrek zer-nolako ondoreak dituen dia-kronian ikertu nahi nuke.

Euskal-diakronian, bada, bi jokabide ikusten ditut nagusi, noiz bata, noiz bestea. Batak, *-(e)n* hori leku-kasuetan noranahi darama: *non*, *nondik* (baina antz. bizk. *norik* eta *nonnahi no-ra*); *han*, *handik* (baina antz., alde guztietan, *arik*, *bizk. arean*, eta orain zeinnahi euskalkitan *hara*, etc., Aezkoan izan ezik, Azkuek dionez: *gena*, *genara*); batez ere, dirudienez, *-gan* (*-ga-n* baldin bada), *-gan(d)ik*, *-gana* (37).

(36) Gogoeta hauen hazia bestek ereina da. Ik. N. RUWET, «A propos des prépositions de lieu en français», *Mélanges... offerts à M. René Fohalle*, Gembloux. 115-135. Gehiegizkoa litzake, ordea, fruituaren erantzupidea, har-joa baldin bada, Ruwet-i egozte.

(37) Azkue ez da zeharo zuzen ari, leku berean hau dionean: «...el inesivo *-n*... conviene advertir que cuando se usa repetido formando modismo, en tal caso recibe el sufijo *-ko*: *egunean eguneango gure ogia... orrako ber-ban berbango gezurtegiari...*» Hirugarren adibidea bera, Leizarragarena, bestelakoa bait da: *Eta haren icena baithango fedeaz* «Et in fide nominis eius» Act. 3. 16). «Arimadunen» izenetan errazago da *-n* horrek irautea, hala nola P. Abarca-tik. 131 or., harturik baldar-xamar itzulia daukanean («este viene en favor de mi»): *ta neu-regango dator au, sutequico icatz ondo erriaz gar baga iraquiten dabelaco emengo lapicuac gueldi gueldi ga-ñecic eguin бага*, «y para mi (tengo para mi, creo) que esto (el buen sabor de la comida de los ferrones) proviene de que...» Ik. oraino. Leiz. eta *hirietan iragaiten ciradela iracasten cituzten hetangoac* (Act. 16, 4: baina hemen *hirietakoak* dira!), Lizarraga Elkano-koa *elcarrengo amoréa* (Coplac, 434), *ni gango uste ona* (Mendi-buru, 1760. 9. 173). etc.; *-kin-ekin*, *aitarequicoa* eguin (Lardizabal. 34), *-n-rik* gabe. Zuberoan eta, jakina de-nez, bereizten da oraindik *étxen / etxin* < *-fan* < *-ean*; *etxéa*, *etxeát* / *etxila*, *etxilát*, artikulua ala artiku-lurik gabe, *etxénko* ere ezagutzen dutelarik.

Bestea, bere aldetik, *-(e)n* kendu-beharrez dabil: *hemendik*, *hemen-en* bizkar hazia da. Forma berria da, beraz, baina, halaz guztiz ere, Euskal-herriaren bi bazterretan agertzen da *-n* gabe: bizk. *emetik*, zub. *hebeti*. Kanta zaharreko *Oñeztar barruangoak*, *barrukoak* lirake egun (38).

12. Zer-nolakoa izan zitekean hortik zetorren nahasteka bizkaiera zaharrean bertan ikus daiteke, nolakotasuna, modua, adierazten duten hitzetan (cf., bestetan ere, *nolatan?*, *nola?-ren* aldamenean). RS-etarik hartuak dira: *Celangoa baysta amea / alangoaoyda alabea* «Qual suele ser la madre / tal suele ser la hija» (35; *Celangoa da Butroe* «Que tal es Butron», 92, bezalaxe), baina *Celan vaysta ojala / alacoa mendela* «Qual es el paño / tal es el orillo», 20.

Diodanaren arabera, *-ko* atzizkiak batipat, baina baita ere *-tik* eta bestek, aldi-hitzetako *-n-ak* zenbait aldiz uxatu dituzte: *oraingo* → *oraiko* («locatif» deitzen du Salaberry manexak *-ko* atzizkia) : egun + *-tik*, *-danik*, Aezkoan eta Erron, Azkuek erakusten digun legez) → egutik, egu-*danik*. Orobat erenegun, *laurdenegun* → *erenegu*, *laurdenegu*, atzizkien laguntzaz.

Erantzun daiteke *-n-ren* galtze hori mugaturik ez diren hitzetan gerta-beharra litzakeala, gehienez ere, ez mugatuetan: *bariaku* edo *eztegu*, adibidez, hortik kanpo leudeke. Baina gauza frogatua da antzina artikulua mugatzailea orain baino urriago erabiltzen zela: cf. *Osaylgo euria* «Pluuias de Hebrero» (RS 891, izen propio modura tratatua).

13. Lehentxeago (§ 10) aipatu dudan gogoeta horrek ezin-ukatzuko alde txarra badu, hemen ukitu baizik egingo ez dudana. Benveniste da, noski, latinezko genitivoaz ari zela, kasu horren mota guztiak *génitif de transposition* delako batetik erakarri zituena (39). Gure hizkuntzan, ordea, ikusirik daukagu, lan gogorrakoa dugu baten ordez bi xuritu beharrean aurkitzen generalako. Gogorrakoa izateaz gainera, Benveniste-ren artikulua ukitu ere gabe, gar-artean pasatzen baltz bezala, uzten duena ilunbetik argitara dakar.

Hauxe da Benveniste-ren bidea: *ludus pueri* ← *puer ludit*, *risus pueri* ← *puer ridet* eta, hortik aurrera, *somnus pueri* lehen, *mos pueri* gero eta, azkenik, *liber pueri* (*haurraren* litzake beti gure hizkuntzan). Baina har dezagun eusk. *hospe gaiztoko* (*Aldi guextoan jayo doa hospe guextocoa* «En el mal punto nacer suele el de mala fama., RS 107): nondik sor daiteke? Ez, segur, *hospe gaiztoan da* edo gisa horretako deusetarik. Orobat latinez: *eloquentia hominis* garbi aski dago; ez, ordea, homo magnae eloquentiae (40). Batean, gizonak du etorria, baina bestean gizona da etorri handikoa. Hor dugu, adibidez, latina eta euskara berdin ditzagun, et *in terra paz hominibus bonae uoluntatis ezaguna*, Harriet-Haraneder-en itzulpenean eta *lurrean baquea dutela guiçon bihotz çucenecoec* bihurtu zaiguna. *Bihotz zuzena gizonek dute*, eta horra gizonen *bihotz zuzena*; *bihotz zuzeneko gizonak-era* heltzezo, ordea, ez ditugu begiak *duten* gizonengana zorrotzu behar, baizik eta gizon horiek *duten-era*. Bestela esan, gieonak dira izandunak edo ukandunak, bihotz zuzena bestek, gizonek hain zuzen, izana edo ukana da.

14. Nahiago nukean, eskaini diodanaren truk, aberatsagorik eta atseginagorik eskaini bario Barandiaran maixuari. Hizkuntzalari batek, ordea, ez du deus askorik etnologo bati emateko (honengandik hartzen duena baino anitz gutxiago, nolana ere); are ezteusago izango da ene emaitza naizena naizelarik ni eta dena delarik bera. Ezer ez omen da, halere, onik mundu kaxkar honetan (Kant-ek uste dut esan zuela) borondate ona baizik eta ez dut uste, alde horretarik behintzat, Barandiaranek eskas aurkituko duenik esker onaren esku-erakutsi elkor hau.

L. MITXELENA

(38) Bizkaieraren lekukotasunak dudarik gabe adierazten du *orain-en* azken-burua ez datorrela **-ain* zaharrago batetik. **-aen* edo antzeko zerbaitetarik baizik: lat. *hora* du noski iturburu, euskal-izen-ordain erakusleren bat duela ondoko (cf. gazt. *ahora*, lehen *agora*, rus, *sejčás*, etc.). Orobat egun 'día' eta egun 'hoy' ez bide ziren osotero berdinak. Badirudi bigarrenak behar zukeala, *egun-ez* gainera, erakuslea edo (aurretik, noski, *aurt(h)en-ek* ere duen bezala: cf. lat. *hodie*, gr. *s-té:meron*, arm. klas. *aysawr*, al. *heute*, rus. *segódnja* eta abar eta abar).

(39) «Pour l'analyse des fonctions casuelles: le génitif latin», *Lingua* 11 (1968), 10-18. Ik. N. RUWET, *Introduction à la grammaire générative*, Paris 1968, 82 h. eta 231 h.

(40) Usuario horrek, besteek ez bezala, muga jakinak zituen: ablativearekin lehian zebilen eta, horrezaz kanpo, izen soila bazterturik zegoen, izen-ondokoa behar zuen aldamenean. Beraz, *homines bonae uoluntatis* bai, baina ez *homines uoluntatis*.